ZIBERSTEILAS
EAEko IRAKASLEAK
20
STEILASen informazio elektronikoa • Data 2026/06/04

ZERBITZU-EGINKIZUNAK 2026-2027

Hainbat zerbitzu-eginkizunen behin-behineko ebazpenak argitaratu dituzte, onartu eta batertuen zerrendekin:

- Hezkuntza Ikuskaritza
- Hezilab
- Bizilab
  ISEI-IVEI
- IVAF-EIEI
- Nazioarteko Batxilergoa
- Urdaibaiko Ingurumen Hezkuntzaren zentroa
- Barnetegiak
- CRI-IBT
- IRALE
- ITLENT
- OETH
- TKNIKA

Erreklamazioak edo horrela badagokio uko egiteak: **ekainaren 5era arte**, egun hori barne, Hezigunearen bidez.

LEKUALDATZE-LEHIAKETA

Maisu-maistak, Irakaskuntza Ertainak eta Ikuskarien destinoen behin betiko ebazpenen aginduak eta zerrendak argitaratu ditzute.

Berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, agindua argitaratu eta hilabeteko epean.

IKHA/COCU 2026-2027

Gaur argitaratu dute IKHA/COCU 2026-2027 ikasturterako informazioa (egutegia, agindu berriak, etab.) Hezkuntza web orrian.

Karrerako funtzionarioentzat ofiziozko esleipenetarako lurralde historikoa aldatzeko eskaera egiteko epea irekiko da ekainaren 8tik ekainaren 12ra.

Eskabideak: hezigunean prestatutako formularioaren bidez.

Egutegiaren laburpena.

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN JAIA,

EKAINAK 7, DENOK SANTURTZIRA!!!